

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa bat aurrera ateratzeko eta etekinak eukitzeko, hainbat jarduera egin behar dira aurretik.

Lehenik, produkzioa jarri genezake; ahalik eta gehien ekoiztu behar da, ahalik eta baliabide gutxien erabiliz, eta azkar, stock-ean bezeroak nahi duena izateko, eta ez dadila joan ezer erosi gabe, ez daukagulako, hau da, gure erruagatik noski.

Bestetik, arazoei aurre egiteko ahalmena izan behar da. Enpresa batean beti egongo dira mota askoko arazoak, eta ongi konpondu behar dira, horrela ez bada, kasu batzuetan gure enpresa arriskuan jar genezakeelako.

Beste jarduera garrantzitsu bat, gure bezeroekin beti kontaktuan egotea da, nolabait, bezeroak beti jakinaraztea gure berrietaz eta zertan gabilen lanean eta zertan ez. Beti izango da errazago gure betiko bezeroak erakartzea, berriak baino, eta horregatik gure bezeroak ondo zaindu behar ditugu.

Azkenik, MiKXuanin lan egiten dutenen motibazioa ezinbestekoa da, beti prest eta motibatuta egon behar dira, eta hori izan litzateke gure gauza onetarikoen ezinbestekoena.